

Abarak

UNAI BREA

Tolkienen unibertsoaren “big bang”-a

Hobbita. J.R.R. Tolkien (George Allen & Unwin, 1937).
Itzulpena: Xabier Olarra (Igela, 2008).

J.R.R. TOLKIEN bere seme-alabentzako ipuin modura idazten hasi zen XX. mendeko literatur obrarik eza-gunenetak baten hazia izan zena. Aurten beteko dira 75 urte *Hobbita* lehen aldiz argitaratu zutela; apika, bera da umeentzat sortua izanik irakurle heldu gehien eduki duen eleberria. Argitaratzaileen eskariari men eginez Tolkienek idatzitako segidari zor zaio hori, zer esanik ez. *Eraztunen jauna* ondu ahala, istorioa sakonago bihurtuz joan zen Tolkien, eta haren obra, azkenik, literaturaren mugak gainditu eta unibertso beregain bihurtu zen, gaur egun milaka edo milioika, ez ditut zenbatu, jarraitzaile amorraturen bizileku alternatiboa dena. Edo agian ni bizi naizen hau da alternatiboa haientzat.



Hasita dago *Hobbita* nobelan oinarritutako pelikularen filmaketa.

Mitologia horren guztiaren *back-ground*-a gogoan nuela ekin nion berriki *Hobbita* berrirakurtzeari –lehen aldia zeregin horietarako adin egokiagoan izan zen–, eta jakina, dezepzio txiki bat hartu nuen, alde zuretik ongi ohartarazita egon arren. Azken batean, gauzak umei esplikatzeko zaizkien moduan esplikatzeko ditu Tol-



kienek nobelan. Eta *Eraztunen jauna* obra handi –nire iritziz– bihurtzen duten elementu gehienak falta dira hemen. Ez naiz orain hasiko elementu horien zerrenda egiten. Hobe, laburbiltzeko, Tolkienek berak behin esandakoa errepikatzea, bere literatur lanaren gai nagusia zein zen galdetu ziotenean: “Heriotza, ezinbestean”. ■



Arabako kuadrilla arteko
BERTSO TXAPELKETA
2012

Antolatzailea



Babesle Nagusiak



www.arabakotxapelketa.org

LIGAK

Otsailak 3, 4, 5:
Gasteiz, Zaldondo, Aramaio, Gasteiz
Otsailak 10, 11, 12:
Amurrio, Gasteiz, Agurain, Aramaio
Otsailak 24, 25:
Gasteiz, Gasteiz, Oion, Izarra

FINALERDIAK

Martxoak 10, 11
Zigoitia, Araia

FINALA

Martxoak 24
Aramaio

argia